

Furgonetan bidaiatzeko plana egingo dugu?

Ikasbiletik hartua eta IKAn moldatua

Bidaiaz gozatzeko batek nahi adina modu daude, eta horietako bat izan daiteke furgonetaz edo autokarabanaz bidaiatzea. Batzuek furgonetan bidaiatzea bizitzeko modu bat bihurtu dute. Sekuentzia honetan, horren adibide bat ezagutuko duzu.



1- Bidaiatzean zer da garrantzitsua?

Bidaiatzeko garaian zure ohiturak eta zaletasunak zein diren ezagutu nahi ditugu. Erreparatu beheko irudiei eta ondoren, erantzun beheko galderari eta komentatu erantzunak bikoteka.



Guk hegazkinaz bidaiatzen dugu, bidaia azkar eta eroso egiteko.



Furgonetan bidaiatzea da gehien gustatzen zaidana, nahi ditudan tokiak askatasunez ezagutzeko.



Guk bizikletaz bidaiatzen dugu, naturaz gozatzeko eta bide batez, kirola praktikatzeko.

Zuretzat, zer da garrantzitsuena bidaiaz gozatzeko?

- Erosotasuna
- Askatasuna
- Toki horretan zerbitzuak egotea
- Abentura bizitzea
- (...)

2- Guk furgonetan bidaiatzen dugu

Oiartza Pampliegak eta Marco Ganuzak furgonetan bidaiatzen dute eta esperientzia horiek partekatzeko webgune bat jarri zuten martxan. Entzun zer dioten horri buruz. Ondoren, aukeratu beheko galderen erantzun zuzena.

1. Euskal Herrian zergatik gustatzen zaigu furgonetan bidaiatzea?

- Hemen naturara hurbiltzea asko gustatzen zaigulako.
- Furgonetazaleei hondartza asko gustatzen zaielako.
- Euskaldunok gure ingurunearekin bereziak garelako.

2. Oiartzak eta Markok zer informazio eskaintzen dute www.furgobidaiaik.eus webgunean?

- Furgonetan bidaiatuz, bisitatu beharreko tokien zerrenda.
- Zer leku bisitatu dituzten, leku horietara joateko aholkuak...
- Bidaia luzeetan izan dituzten esperientzia txarrak.

3. Furgoneta aparkatzeko, zer egoera ikusi zuten Ingalaterran?

- Isuna jarri zieten gaizki aparkatzeagatik.
- Debekatua zegoen kanpinetatik kanpo lo egitea.
- Bideak oso estuak zirenez, ez zuten lortu furgoneta aparkatzea.

4. Marco eta Oiartzaren ustez, Grezia paradisua da furgoneta zaleentzat. Zer arrazoi eman dituzte?

- Aparkatzeko askatasun handia dago eta ez dago gehiegi masifikatuta.
- Han furgoneta zaleak ondo ikusita daude.
- Kalitatezko aparkalekuak dituzte eta ez dago jende-pilaketarik

3- Furgonetan lo egiteko erak



*Irakurri
www.furgobidaiak.eus
blogeko testu-zati hau.
Bertan Marcok eta Oiartzak
furgonetan lo egiteko zenbait
aholku eta informazio
ematen dute. Irakurri
ondoren, erantzun beheko
galderei eta binaka
komentatu zuen erantzunak.*

FURGONETAN GAUA PASATZEKO ERAK

Bidaia bat planifikatzen hasten garenean gaua pasatzeko lekuen zerrenda eramatea komeni da. Izan ere, gaua non pasako dugun pentsatuta eramateak ezusteko asko aurreztuko dizkigu; adibidez: isunak jasotzea, furgonetarekin arriskutsuak diren lekuetan sartzea... Gainera, gaua non emango dugun jakinda eguneko bisita lasaiago egingo dugu.

Kanpina ACSI txartelarekin hobe

Gaua pasatzeko modurik seguruena eta lasaiena da, baina abenturazaleontzat eskas samarra. Segurtasuna, zaindutako espazioak eta zerbitzu asko dituen leku baten bila bazabiltza (dutxak, denda, jatetxea...), furgonetan gaua igarotzeko era aproposa da kanpina. Txartel honekin ACSI elkarteko kanpinetan preziorik onena lortuko dugu gaua pasatzeko, uztailan eta abuztuan izan ezik. Txartelak eta bi liburuxkek osatzen dute Camping car ACSI sistemak eskaintzen duen materiala. Liburuxketan Europa osoan bazkidetuta dauden kanpinak eta euren inguruko informazioa aurki ditzakegu. ACSI txartela Kanpinetako harrera-bulegoan erakusterakoan berehalako deskontua aplikatuko zaio gauari.

France Passion

Urtean 30 €-ren truke txartela, ibilgailua identifikatzen duen eranskina eta furgoneta edo auto karabanen turismo ibiltaria onartzen duten establezimenduen bilduma jasoko ditugu etxean.

France Passion zigiluarekin hainbat ardogile, nekazari, artzain... topatuko ditugu. Prest agertzen dira beraien lur-eremuetan gure ibilgailuak hartzeko, gaua pasatzeko. Gainera, aukera dago beraien lurrak, negozioak edota produktuak ikusteko, produktu horiek dastatzeko eta abar.



Orokorrean, pertsonak harremanetan jartzeko modu bat da eta ekoizleak (produktoreak) eta bidaiariak zuzen lotzen duen turismo egiteko modu bat da. Gure ustez, gaua pasatzeko sistema honek harremanak lantzeko aproposa egiten du bidaia.

Auto karabana guneak

Guztiz osatutako furgoneta badugu eta han-hemenka ibiltzea gustuko badugu, auto karabana gunea aukera ona da. Gune horiek bidaia egiteko behar diren zerbitzuak eskaintzen ditu: ur zikinen hustuketa, ur edangarriz deposituak betetzea, aparkatzeko eta lo egiteko espazioa... Gune hori kudeaketa pribatukoa bada, ezarritako prezio bat ordaintzen da.

Aukera horrek ez du kanpina jartzeko baimenik ematen, eta beraz, kanpinetako elementuak (mahaia eta aulkiak, toloa...) ezin dira zabaldu. Orduan, familia bidaiariontzat aukera hau hankamotz (motz) geratzen da. Hala ere, auto karabana guneek lekua bertatik bertara ezagutzeko aukera emango digute eta oso egokiak dira hiri handiak bisitatzeko, kanpin bat ordaindu gabe.

www.furgobidaiak.eus blogeko testu-zatia, moldatuta.

- 1. Testuan ematen den informazio eta gomendioak interesgarriak iruditu zaizkizu? Zein da gomendiorik interesgarriena, zure ustez?**
- 2. Ezagutzen zenituen furgonetan lo egiteko era hauek?**

4- Zein izango da gure hurrengo bidaia?

Jarri binaka, eta egin planak egingo duzuen hurrengo bidaiari buruz.

ERABAKI:

- **nora** joango zareten, bisitatuko dituzuen tokiak...
- **non lo** egingo duzuen...

Eta behin hori erabakita BILATU eta OSATU informazioa. Horretarako jo www.furgobidaiak.eus webgunera (edo beste batera).



2- Guk furgonetan bidaiatzen dugu

1. *Euskal Herrian zergatik gustatzen zaigu furgonetan bidaiatzea?*

- Hemen naturara hurbiltzea asko gustatzen zaigulako.

2. *Oiartzak eta Markok zer informazio eskaintzen dute www.furgobidaiak.eus webgunean?*

- Zer leku bisitatu dituzten, leku horietara joateko aholkuak...

3. *Furgoneta aparkatzeko, zer egoera ikusi zuten Ingalaterran?*

- Debekatua zegoen kanpinetatik kanpo lo egitea.

4. *Marco eta Oiartzaren ustez, Grezia paradisua da furgoneta zaleentzat. Zer arrazoi eman dituzte?*

- Aparkatzeko askatasun handia dago eta ez dago gehiegi masifikatuta.